

Ilargiaren xuxurla

JUAN KRUZ IGERABIDE

Ilustrazioak: Manu Ortega





Ilargiaren xuxurla

JUAN KRUIZ IGERABIDE

Ilargiaren xuxurla

Ilustrazioak: Manu Ortega

giltza

© Testua: Juan Kruz Igerabide, 2023
© Ilustrazioak: Manuel Ortega, 2023

© Arg. Eusk: Giltza, 2023
Askatasun etorb., 69
48901 Barakaldo (Bizkaia)
www.edebe.com

Argitalpenen zuzendaria: Reina Duarte
Haur Literaturako editorea: Elena Valencia
Bildumaren diseinua: Book & Look

1. argitalpena, 2023 eko otsaila

ISBN: 978-84-8378-654-3
Lege-gordailua: B. 16035-2022
Espainian inprimatua
Printed in Spain

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos) (www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 45).

Sehaskatxoan haurra
haizeak ekarri,
ilargiño apurra
ene maitagarri.

Mali Okič, Eslovenia, 2017ko urriaren 20a.

1

Ostiral gaua

L arri esnatu naiz. Belarriak erne. Hasieran, orbelaren xuxurla iruditu zait, haize leunak arrastaka daramala; ilargiaren xuxurla deitzen dio amak. Erne nago, edozein hots arraro hautemateko prest. Une bat geroago, pausoak entzuten ditudala iruditzen zait, kontuz-kontuz basoan zehar gauaren erdian. Ez da ilargiaren xuxurla, zerbait gehiago da. Adi-adi nago, begiak zabal-zabalik ilunpetan. Ez naiz ausartzen jaiki eta leihora irtetera ea nor dabilen galdetzera. Beldurra, beldurra, beldurra; nire begiak betazalen kontra estutzen dira. Arnasa hartzen dut, arnasa, arnasa. Atea itxita dago, leihoa itxita dago, babesturik gau-

de. Arnasa, arnasa, arnasa. Lasaixeago nago. Orain ez dut ezer arrarorik entzuten; orbelaren soinua besterik ez, udazkeneko haizeak emeki bultzaturik, ilargiaren xuxurla. Ez dut ezer gehiago entzuten. Beharbada ez ziren pau-soak entzun ditudan horiek, beharbada irudipen hutsa izan da, ametsaren erdian esnatu eta sentitzen duzuna ametsaren barnekoa ala kanpoko den oso garbi ez dakizunean bezala.

Atzo etorri nintzen gurasoekin eta anaia txikiarekin, asteburua aitona-amonen landetxean igarotzera, Mali Okič herrixkan, Kroaziarekiko mugatik gertu. Berandutu egin zitzaigun, trafikoagatik; iritsi eta berehala afaldu eta oheratu ginen. Arratsaldean kirol-ekintzetan ibilia nintzen eta, hain nekaturik nengoen, non hanka ohean sartu orduko lokartu bainintzen, anaiari gau on esatea ere ahaztuta. Hortxe dago, alboko ohean, lo sakonean.

Gurasoak, paretaren beste aldean zurrungaka. Nire anaia Maxek arnasa leun hartzen

du, haizeñoak bezala. Haren ezpaineak zer bait xuxurlatzen dute, basoko orbelak lurra laztantzen duenean bezala. Ilargiaren xuxurlarekin ametsetan ari ote da?

Gustuko dut anaiaren ametsak entzutea; noizbehinka, hitzen batek ihes egiten dio; batzuetan, oihu ere egiten du, beste batzuetan barre, beste batzuetan nire izena errepikatzen du behin eta berriz, nirekin jolasean balebil bezala, Urxa, Urxa, Urxa. Inoiz katuen antzeko marmarra ere ateratzen du. Inoiz ez diot entzun nire kontrako eztabaidarik ametsetan; hori atsegina zait, esna dagoenean edozein aitzakia aski baitu nirekin sartzeko.

Pausoak, hanka-hotsak. Oraingoan bai, ziur nago, oraingoan garbi entzun ditut. Ezin da izan haizea hosto iharrak eramanez; hots hori azkoz zabalagoa izaten da, basoa bezainbat, hostoz estalitako aintzira bezainbat, alde guztietatik datorrena. Baina honako hau leku jakin batetik dator; aitonaren lurra inguratzen dituen bide aldetik; esango nuke. Ez da katu edo azeri baten ibiltzeko modua. Badakit on-

do nola ibiltzen diren animalia horiek, aireak baino pisu gutxiago izaten saiatuz; haizea geldi-geldi dagonean, orbela zanpatzean baka-rik entzun ditzakezu, baina, haize leun batek hostoak mugitzen baditu, animalia horiek ezin dituzu sumatu ere egin. Horiek bai nahasten direla ilargiaren xuxurlarekin. Baina nire belarriek entzundako pauso isil horiek antz handiagoa dute hartz talde batek ateratzen duen zaratarekin.

Beldurra, beldurra, beldurra. Arnasa hartu, arnasa, arnasa. Hartzai beldur handia diet. Ez naiz ausartzen ohetik jaikitza eta leioa zabaltza. Eta gutxiago gurasoei deitza. Ama kapaz da atetik irten eta hartzari oiho egiteko alde egin dezan. Oso ausarta da. Haurtzaroan etxe honetan hazi zen, basoz inguratua. Errekara jaistea atsegin zuen, ziriek eta harriekin jolastera eta bere zurezko panpina kuttuna bainatza. Oraindik hor dauka, egongelako apal batean. Erreka inguruan korrika zebilela, behin baino gehiagotan topo egin zuen ura edatera jaitsitako hartz-familiaren batekin.

Hartz ugari dago Eslovenian. Berak ez zien beldurrik. Esaten duenez, beldurrik ez badiezu eta ihes egiten ez badiezu, ez dizute eraso egiten. Berari behintzat inoiz ez zioten erasorik egin.

Gogoan dut gau batean, oraindik ere dardard egiten dut oroitzean, etxe honetan bertan, Max eta biok txikiagoak ginela, hartz batekin izan genuena. Orain bezalaxe geunden, asteburu bat igarotzen. Afalostean, amak in-txaur-tarta bat prestatu zuen, *potica* deitzen dioguna, eta leiho-ertzera atera zuen hoztera, hozkailura sartu aurretik.

—Urxa: ekarri trapu garbi bat.

Sukaldeko armairuko kaxoitik zapi bat atera eta berehala eraman nion. Gero, atea itxi genuen eta su baxuaren aurrean eseri ginen; han erretzen genuen okela, barazkiak, pizzak, eta etxea berotzeko erabiltzen genuen.

Artean goiz zen oheratzeko. Amak ipuin bat irakurri zigun, eta gero aitak haurtzaroko gertakizun bat kontatu. Aitonak eraikitako mendialdeko etxe honetara etortzen

garenean, une magikoetako bat sutondoan esertzen garenean gertatzen da, suari begira istorioak entzunez. Gutako bakoitzak zerbait kontatzen du, eta gainerakoek liluraturik entzuten diogu.

Geroko utziko ditut laurok kontatu genituen istorioak; zeren, nirea kontatu ondoren, hau da, azken kontakizuna kontatu ondoren, zerbait gertatu baitzen oso-oso lazgarria. Oraindik ere dar-dar egiten dut oroitu hutsarekin.

Kanpoan, erabat ilun: gau itxia zen, zerua hodei beltzez estalia zegoen; ez gaur bezala; gaur, ilargia hodei apur batzuen artean ageri da. Euria hasi zuen, emeki, norbaitek mendietan milioika hatzez danborra joko balu bezala. Bat-batean, leihoaren beste aldean, zalaparta metaliko bat entzun zen.

—Nire *potica*! —egin zuen oihu amak, amorruz beterik—. Haizeak bota du nire *potica*!

Segituan konturatu nintzen kanpoan ez zebilela inolako haizerik; euriaren murmurio gozoa besterik ez. Baina amak ez zidan

denborarik eman hori azaltzeko. Haserre, kanpoko argia piztu eta atea zabaldu zuen kolpetik.

Gure begi harrituaren aurrean agertu zenak hitzik gabe utzi gintuen. Izuak hartu zidan gorputz osoa, eta ez nintzen gai atal bat ere mugitzeko. Anaia bai, hura mugitu zen: katu ikaratu baten pare, jauzi batez mahaira igo zen, han goian babesean egongo balitz bezala. Aitak amari besotik heldu zion eta erakartzen saiatu zen, atea bizkor ixtearren.

Amak, ordea, besoa askatu, eta pauso bat egin zuen aurrera.

—Zer ari zara, lotsagabe alaena!

Hartz nabar erraldoi bat ageri zen, *potica* zegoen metalezko ontzia lurrera bota eta handik jaten.

—Hori ez da zuretzat! —egin zuen oihu amak berriro.

Hartza zutitu egin zen, handi-handi, eta orro ozen bat bota zuen.

—Ni ez nauzu beldurtzen! —egin zion oihu amak.

Aitak bizkor hartu zuen aizto bat sukaldetik, ama hartzari errietan ari zitzaion bitartean.

—Zer uste duzu, e! Ondo irudituko zaizu egin duzuna! Gure gosaria lurrera bota duzu. Amak ez zizun erakutsi gauzak errespetatzen, ala?

Hartzak, amaren hitzak ulertu balitu bezala, burua astindu, makurtu, eta aurreko hankak lurrera jaitsi zituen. Gero, alde batera jarririk, burua beso artean ezkututzen saiatu zen, lotsatuta balego bezala. Eta negar-zotin bat egin zuen.

Amak, oihu egiteari utzi, eta ahots leunez hitz egin zion:

—Tira: *potica* lurrera bota duzunez, amaitu dezakezu jaten.

Hartzarengana hurbildu, ontzia jaso, eta ahora eskaini zion. Nik mugitu ezinik jarraitzen nuen. Maxek, berriz, mahai gainean estatua bat zirudien. Eta aitak, ezpata prest daukan gerlari bat.

Hartzak *potica* hondarrak miazkatu zituen ontzitik eta lurretik, gozozale amorratu batek bezala. Amak berriro hitz egin zion:



—Jan duzu dena. Orain, zoaz eta ez eman susto gehiagorik hemen. Basoan baduzu nahikoa janari bizi ahal izateko.

Hartzak amaren hitzak ulertu egiten zituela ematen zuen; agian bere amaren ahotsa gogorarazten zion. Behintzat, kontua da jiratu eta tipi-tapa lasai-lasai urrunduzela, ilunpetan desagertu arte.

Geldi-geldi egon ginen une batez. Konturatu nintzen ama ez zegoela hartzaren aurrean bezain sendo eta indartsu; gorputza dardarka hasi zitzaion, eta balantza egin zuen. Aita, aiztoa bere lekuan utzita, ama besarkatzera joan zen bizkor; gogor heldurik, etxe barrura sartu zuen. Une hartan, nire gorputz paralizatuak keinu bat egin zuen, eta bizkor itxi nuen atea. Maxek jauzi egin zuen mahaitik, gurasoak besarkatzeko. Poliki hurbildu nintzen haiekin batzera. Halaxe egon ginen, isilik, harik eta gure bihotzen taupadak bere onera etorri ziren arte.

—Uf! —egin zuen hasperen aitak, eta askatu egin zen.

Ni aulki batean eseri nintzen. Maxek amari itsatsita jarraitzen zuen, lapa bat bezala.

—Hau sustoa! —esan zuen azkenean amak—. A zer beldurra!

Maxek pixka bat atzera egin zuen, amari begira, sinetsi ezinik hartzaren aurrean beldurrak airean egon zela. Nik aitari begiratu nion. Hark eutsi egin zidan begirada eta barre egin zuen. Niri ere barreak eman zidan. Eta ama eta anaia kutsatu genituen. Handik pixka batera, laurok barre eta barre ari ginen; hasieran, barre urduria izan zen, baina gero alaituz joan zen. Anaia galtzak pixka bat bustirik bainu-gelarantz lasterka abiatu zenean isildu ginen, amorratu egiten baita hori gertatzen zaionean barre egiten badiogu.

Gau hartan ez nuen lorik hartu berehala. Behin baino gehiagotan esnatu nintzen, belarria zoli, ea zerbait arraroa entzuten ote nuen kanpoan. Baina inolako hots arrarok ez zuen urratu gau barea; euriaren xuxurla leunak jarraitu zuen, zetazko hatzekin lurrean danborra joz.

la hitzez hitz gogoratzen ditut hartzarena
gertatu aurretik kontatu genituen ipuinak.
Amak sahas-lore baten istorioa irakurri zigun...

Sahats-lorea

Haize zakar batek sahats-lore bat erauzi, eta Hairean zehar eramán zuen, mendiak eta zelaia zeharkatuz, sahats-landarerik ez zegoen lurralde urrun bateraino. Bero kiskalgarria egiten zuen paraje haietan. Haizea, egarriak itota, urrunean ikusi zuen aintzira batera hurbildu zen ziztu batean; oasi bat zen. Uraren gainera etzan zen leunki-ro, behe-laino bat sortuz eta kezko malutak aireratuz, zerurantz elurra ari balu bezala.

Sahats-lorea uretara erori zen haizearekin eta igeri geratu zen hantxe. Haizea, freskatu ondoren, bare-bare geratu zen, eta oso poliki aldendu zen, sahats-lorea eramateko kemenik gabe. Aintzirako ura oso geldia zen; beraz, lorea ezin zen mugitu inora. Izar bakarti bat zirudien aintzirako zeru islatuan.

Ilundu zuenean, sahats-loreak distira egiten jarraitu zuen gau osoan, ur-azalean dirdirka zauden izarren errainuekin norgehiagoka.

Goiz-txintan, beltxarga bikote bat hegan igaro zen aintzira gainetik. Beste aldera iritsita, buelta hartu zuten poliki, eta aintziraren gainean biraka ibili ziren, zirkuluak eginez, parez pare, ureratze-ko lekurik egokienaren bila. Sahats-lorea begiz jo zutelarik, beherantz abiatu, eta ur-azalean trebezia handiz irristatu ziren hanken gainean zenbait metroan, hegoak astinduz.

Ur-azalean sortu zituzten uhinek urrundu egin zuten pixka bat sahats-lorea, baina ez gehiegi ere. Beltxargek lumak atondu zituzten eta beren burua garbitu zuten asti batez. Gero, elkarri lepoa laztandu zioten, txandaka. Une batean, bi lepoek txirikorda bat osatu zuten. Argi zegoen maitemindurik zeudela.

Beltxargetako batek begi ertzetik begiratu zion sahats-loreari. Bikotekidea askatu, eta urean irristatu zen. Mokoaz lorea hartu, kontu handiz, eta maitalearengana itzuli zen, eta bizkarrean jarri zion lorea, luma artean.

Sahats-lorea, beltxarga maiteminduaren luma artean, uretan zehar ibili zen, eta gero airean, bikotearen arteko maitasunak iraun zuen bitar-

tean. Azkenik, ihartu egin zen, eta lore-hauts
bihurtu zen, haizez haize hegan, lurretik zerura,
zerutik lurrera, izarren hautsa bezala.



Guk maiz erabiltzen dugu sahats-lorea ez-tularen eta marrantaren aurkako jarabeak eta belar-urak prestatzeko. Orain, jarabea hartzen dugun bakoitzean, amak irakurri zigun ipuinaz gogoratzen gara. Eta orobat sahats-ukendua ematean larruazaleko urratu eta beste arazoentzat. Ukendu magikoa da hori; amonak prestatzen du sahats-adaxka hezeen azalarekin. Adaxken azaletik zerrendak ateratzen ditu aizto batez, ontzi batera bota, olio edo gantzez estali, eta gutxienez ordu pare batean frijitzen ditu; gero, azalak kendu, eta erleen argizaria gehitzen dio ukenduari.

Orain aitaren txanda zen. Hitza hartu zuenean zortzi urte zitueneko gertaera bat kontatzeko, Maxek begiak zabal-zabal egin zituen, berak une hartan zortzi urte baino ez baitzituen.

Denok berdinak gara

Aita Lehen Hezkuntzan zebilela, jakintsu baten idatzia irakurri zien maistrak, eta zioen gizaki guztiok berdinak garela. Aitak hitzez hitz sinetsi zuen esaldi hura, gizon jakintsu batek liburu batean idatzia zelako, bera artean umea baitzen eta gauza asko baitzeukan ikas-teko.

Etixerakoan, hala ere, zalantza sartu zitzaion. Gizaki guztiok berdinak baldin bagara, zergatik batzuk handiagoak dira, beste batzuk txikiagoak, batzuk gizenagoak, beste batzuk argalagoak, batzuk ilehoriak, beste batzuk beltzaranak, batzuk emakumeak, beste batzuk gizonak, batzuek izen bat dute, beste batzuek beste bat, eta horrela etengabe? Gutxienez laminak bezalakoak balira, denak Po izenekoak, edo Gilen izeneko iratxoak bezalakoak, ipuin batzuetan kontaktzen denez...

Ettxera iristean, aitona ikusi zuen; oiloei jana ematera zihoan.

—Aitona, aitona: maistrak jakintsu baten idatzi bat irakurri digu, eta dio gizaki guztiok berdinak garela.

—Halaxe da.

Aitona ere bat zetorren jakintsuarekin.

—Orduan... zu eta ni berdinak gara, aitona?

—Noski, jakina.

—Aitona: begiratu al diozu zeure buruari ispiluan?

Aitona pentsakor geratu zen une batez. Burua astindu zuen eta oiloei artoa botatzera urrundu zen, aitari erantzun gabe.

—Purra, purra...! —deitu zien gerturatzeko, eta hortz artean xuxurlatu zuen—: Ume honekin!

Une hartan, oilarra agertu zen; oiloak uxatu eta arto guztia beretzat nahi izan zuen. Orduan, aitonak zarta jo zion bizkarrean eta atzerarazi egin zuen.

—Oiloek ere eskubidea dute jateko, berekoi halakoa!

Aitak arreta handiz ikusi zuen gertaturikoa. Gero, etxerakoan, esan zion aitonari:

—Aitona: oiloak ez dira berdin-berdinak.

—Ez. Desberdina dute lumen kolorea edo tamaina...

Aitona isilik geratu zen, pentsakor, zerbait zaila pentsatzen ari balitz bezala. Aitak hizketan jarraitu zuen:

—Aitona: oiloak ez dira denak berdinak itxuraz, baina berdinak dira jateko eskubidez, ezta? Modu berean, gizaki guztiok berdinak gara eskubidez, baina ez berdin-berdinak itxuraz.

Aitonak, begiak arranpalo, baietz egin zuen buruaz, hitzik atera gabe.

—Ume honekin!





Eztabaidan jardun genuen denbora batez, ea zer zen denok berdinak izatea baina ez berdin-berdinak. Bat-batean, Max zutik jarri zen, oso serio, bekainak goratuta, eta berak itxi zuen eztabaida, honako hitz hauekin, denok aho-zabalik utzita:

—Pertsona guztiak eta animalia guztiak eta landare guztiak eta mineral guztiak berdinak gara, hiltzean edo desegitean izarren hauts bihurtzen baikara, sahats-lorea bezala.

Isilik geratu ginen, pentsakor.

Max aulkian mugitu zen, ezinegonez. Ipui-nen haria osatzea kostatu egiten zaio, baina berari entzutea nahi izaten du. Nik uste mago bat sentitzen dela, eta hipnotizatuta gauzkala pentsatzen duela.

Sorgina eta haurtxoa

Bazen sorgin bat, baina geroago etorri zen; aurrena ama batek umetxoa zeukan besoe-tan, eta aita lorategian zebilen, orbela biltzen, eta sorgina herrenka zetorren, oso zaharra zelako eta ibiltzeko lanak zituelako baina ibili egi-ten zen eta gero eta gertuago zegoen ama eta umearengandik, eta ama umeari titia ematen ari zen sagarrondo baten kontra eserita, edo agian mertxikondoa zen, ez dakit ondo, zeren maistrak azkar samar kontatu baitzigun ipuina, ia irteteko ordua zelako.

Aita umetxoaren arropa garbitu berria zintzilikatzerara joan zen, umetxoek asko zikintzen baitute, eta zintzilikatzeko soka etxearen beste aldean zegoen. Horregatik aitak ez zuen ikusi sorgina oinak arrastaka, zapata zaharrekin, eta zapata batek zuloa zeukan, eta handik behatz potoloa ageri zen, azazkalik gabe, zikin, beltz edo narras, ez dakit nola esan zuen maistrak.

Eta ama lasai lo zegoen arbolaren kontra, eta umetxoa ere bai, eguzkiak maite-maite egiten ziela, zuhaitzetako hostoek basoko kanta bat xuxurlatzen zuten bitartean, eta horrela edozeinek hartzen du lo, esne-mamitan lo hartzea bezala baita, nahiz eta maistrak ez zuen esan halakorik, baina nik bai, esne-mamiak bezalakorik ez baitago, eta haiek janda lo goxo-goxo egiten baituzu.

Eta sorginak bere ile zikina motots biribil batean bildurik zeukan orratz luze batez. Atera zuen orratza eta ilea askatu zuen. Hain narratsa zeukan ilea, ezen errauts beltz bat erori baitzen lurrera, eta airean pasatu zen txori batek atxis egin zuen, uste dut kaxkabeltx bat zela, baina sorginak ez zuen entzun kaxkabeltxaren atxis hura, belarri bat eta bestea biak gor baitzeuzkan. Sorgina isilka gerturatu zen, bere hanka handiekin harrietan eta adaxketan zarata ateraz, baina ez ama ez haurra ez ziren esnatu. Sorgin gaiztoa begirada gaiztoarekin ama lokartuaren ondoraino joan zen eta orratza sartu zion buruan, dzast.

Orduan amatxo hura uso izutu bat bihurtu zen eta hegan irten zen ziztuan edo tximistuan, ez dakit nola esan zuen maistrak.

Sorginak umeari ezpainetan ukendu bat jarri zion, ixo eta kittoko ukendua hain zuzen; besoe-tan hartu, eta sagarrondoaren kontra eseri zen. Esertzerakoan, ia erori zitzaion umea, sorgina ez baitzen amatxo bezain arina, eta belaunek kras-kras egin zioten, intxaurrak kraskatzean bezala, baina ozenago. Eta kantari hasi zen, eztarrian izugarritzko marrantarekin, eta inguruetako txori guztiak korrika ihesi irten ziren; alegia, hegan hankak bizkor-bizkor mugituz. Eta aitaxo ez zen konturatu ere egiten, etxearen beste aldean umearen arropa zintzilikatzen jarraitzen baitzuen eta seguru asko musika entzuteko entzun-gailuak belarrietan edukiko baitzituen, nahiz eta halakorik esan ez maistrak.

—Lo eta lo, ene haurtxoa, lo eta lo, ene polita, orain nirea zara, niretxoa, nire ahoko pipita —kantatzen zion sorginak bere ahots zakarra-ekin, bele zahar batek bezala karranka eta ka-

rranka, eta asto batek baino gehiago desafinatuz.

Umea ez zen esnatzen eta ez zuen negarrik egiten, ixo eta kittoko ukendua zeukalako ez-painetan.

Usoak urrunera ihes egin zuen, oso ikaratuta. Sustoa pasatu zitzaionean, zeruan buelta hartu eta itzuli egin zen, baina sorginak eskua jaso, arrano baten erpea baino zorrotzagoa, eta berriro ikaratu zuen. Usoa urrunago aldendu zen.

Arratsalde gozoa eta gozagarria egiten zuen, eta behiak bake-bakean larrean zebiltzan urru-neko mendian, eta sorginari, bake-bakean larrean zebiltzan behiei begira, bere buru handia alde batera eta bestera erori zitzaion, ume gaixoa besoetan zuela, eta zurrungaka lo hartu zuen, hain zurrunga handiekin, non bere bruxa zahar-raren lepoa tarratatu baitzuen, behiei izerdia lehortzeko trapu zahar bat balitz bezala. Eta aittak arropa zintzilikatzen jarraitzen zuen, makal samarra baitzen lan horretan, eta ez zen ezertaz jabetzen, belarriak rock musikaz beterik, antzinako rock zakar horietakoa seguru asko.

Usoari bigarren sustoa pasatu zitzaionean, zeruan buelta hartu zuen eta berriro itzuli zen. Sorginak zurrungaka jarraitzen zuen, bruxaren lepoa tarratatuta, eta usoa haren gainetik isil-isilik igaro zen, eta etxearen beste aldean lurreratu zen. Aitak azkenean arropa zintzilikatzen amaitu zuen eta usoari begiratu zion, oso gertu baitzeukan. Aitak entzungailuak kendu zituen eta eskua luzatu zuen, eskuaren ahurra erakutsiz, honela, pastel bat edo fruta bat eskaintzen dizutenean bezala, baina hobe pastel bat, eta usoak hegoak astindu zituen pixka bat aireratu eta bere senarraren eskuan pausatzeko, berak bai baitzekien senarra zela, baina senarrak ez bera emaztea zela, oso zaila baitzen igartzea ama uso bihurtua zela, nola asmatuko zuen ba gizajoak. Aita on hark, ona baitzen, nahiz eta asko enteratu ez, laztan egin zion buruan, eta usoak dar-dar egin zuen haren hatzen pean.

Hala, usoaren burua laztantzen ari zela, aita-
ren hatz erakusleak koxkor bat ukitu zuen.

—Zer da hau?

Koxkor hura ukitu eta ukitu egon zen, eta denbora pixka bat behar izan zuen orratz baten burua zela enteratzeko; izan ere, benetan arraroa da uso baten buruan orratz baten burutxoak aurkitzea. Poliki-poliki tiraka, orratza atera zion. Orduan, usoa emazte bilakatu zen, dardarka besarkatuz, eta aita ia lurrera erori zen sustoarekin.

—Eta umea? —galdetu zuten aitak eta amak, zeharo izututa.

Etxearen beste aldera kirika egin zuten eta sorgina zurrungaka ikusi zuten, inguruko hautsa eta orbela altxatuz sudurreko haizearekin, baina umetxoa ez zuen esnatzen, ixo eta kittoko ukendua jarri ziolako, horregatik.

Amatxok, orratza harturik, lasterka egin zuen aitarekin batera sorginarenganaino, baina sorgina ez zen esnatu hala ere. Amak, isilka, orratza buru zikin hartan sartu zuen, dzast. Une hartan, sorginak karranka atera zuen, umea askatu, eskerrak ama bizkor ibili zen airean jasotzeko, eta sorgina bele bihurtu zen, lurrean arrastaka ihesi, eta azkenean lortu zuen aireratzea, pinu-adar bat buruaz



jo, pinaziak lurrera bota, baina hegan jarraitu zuen urrutira, oso urrutira, urruneko mendian larrean bake-bakean zebiltzan behien gainetik, eta laino batek irentsirik desagertu zen, laino batek edo agian fabrika bateko keak, ez nago ziur. Kontua da belea keak irentsi zuela eta desagertu egin zela.

Umetxoak brrrr egin zuen ezpaineekin, gonbito pixka bat ere bota zuen, ixo eta kittoko ukendua ezpainetatik kentzeko, eta negarrez hasi zen gogor, eta amak segituan bularra eman zion lasaiarazteko. Aita haien ondoan eseri zen, beso batez biak besarkatuz, hasperenka, eta beste besoko alkandora-mahukarekin bekokiko izerdia xukatu zuen, eta begietako malkoak edo izerdia, ez dakit ondo, baina horrelakorik ez da egin behar, mahukak itsusi geratzen direlako.

Azkenean isildu zen Max. Orain nire txanda zen. Atsegin ditut ipuinak, baina batzuetan poemak ateratzen zaizkit; ipuinak bezalakoak dira, baina tarte huts askorekin. Poemak honako izenburu hau zuen: *Aitonaren behia*.

Aitonaren behiak
egin nahi du hegan,
hodeira igota
Polora joan nahian;
han ez da larrerik,
belarrik mendian;
patinatu dezakezu
esnezko zelaian,
eta mihiaz milika
izozki hotza jan.

